

ISEI - IVEI

E2.2.4

**CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2. MAILAN:
INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA.**





IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION



Edizioa: 2021eko otsaila
© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.hezkuntza.net



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Aurkibidea

INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011, 2015, 2017 eta 2019. 4

E2.2.4.1 taula eta grafikoak:..... 6

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Idatzizko ulermena, ahozko ulermena eta idatzizko adierazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera..... 6

E2.2.4.2 taula eta grafikoak:..... 7

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera..... 7

E2.2.4.3 taula eta grafikoak:..... 8

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna). 8

E2.2.4.4 taula:..... 9

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 9

E2.2.4.4 grafikoa:..... 10

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea. 10



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011, 2015, 2017 ETA 2019¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* duten errendimendu mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2011, 2015, 2017 eta 2019an gauzaturako Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoa eta hiru errendimendu maila dituen eskala batean.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: sexua, indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko (jaioturtearen arabera), geruzak (ikastetxearen titulartasuna², hizkuntza-eredua³), jaiolekua, aitaren eta amaren ikasketak eta familiako hizkuntza.

2019an, DBHko 2. mailako ikasleek 244 puntu lortu zituzten *ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*. Nesken guztizko puntuazioa (253) 16 puntu altuagoa da mutilena baino (237). Hiru dimentsioei dagokienez, neskek mutilek baino puntuazio hobek lortu dituzte dimentsio guztietan: *idatzizko ulermenean* 17 puntuko aldea, *ahozko ulermenean* 16 puntuko aldea eta *idatzizko adierazpenean* 15 puntuko aldea. 2011 eta 2019 artean bilakaera positiboa izan da 2017ra arte (5 puntu) eta 2017tik 2019ra 11 puntu jaitsi da.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako ikasleen ehunekoa, 2019an, errendimendu maila handienetik txikienera izan da: maila aurreratuan (% 21,2), erdi-mailan (% 57,8) eta hasierako mailan (% 21,0). Maila aurreratuan, nesken ehunekoa mutilena baino 8,4 puntu handiagoa da; erdi-mailan, nesken ehunekoa mutilena baino 4,1 puntu handiagoa da; eta hasierako mailan, mutilen ehunekoa neskena baino 13,5 puntu handiagoa da. 2017ko Ebaluazio Diagnostikotik 2019ko Ebaluazio Diagnostikora, errendimendu-mailaren araberrako guztizko ehunekoak aldatu egin dira, bereziki hasierako mailetan (6,7 puntuko igoera) eta maila aurreratuan (5,5eko murrizketa). Sexuan oinarritutako aldeak, 2019an 2017arekin alderatuta, hasierako mailan (5,8 puntu) eta erdi mailan (6,3 puntu) igo dira, eta maila aurreratuan antzekoa gelditu dira.

Puntuazioak geruzaren arabera aztertzean, ikusten da puntuazio altuena itunpeko A ereduari dagokiona dela (256), eta ondoren itunpeko D (252) eta B (252) ereduak daudela. Sare publikoaren barruan, D eredu (237) da puntuaziorik altuena duena eta A eredu (206) baxuena duena. 2017ko Ebaluazio Diagnostikotik 2019kora, geruza guztiek behera egin dute, eta esanguratsuenak A eredu itunpekoari (20 puntu), D eredu itunpekoari (14 puntu) eta D eredu publikoari (12 puntu) dagozkienak izan dira.

2019ko ebaluazio diagnostikoan erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasleen profila, ehunekorik altuenean, hau da: familiak goi mailako ikasketak dituztenak (% 87,4), irakasmilarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 85,4), ISEK maila altua duena (% 89,1) eta bertakoa dena (% 80,2). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehunekorik txikiena duen ikasleen profila irakasmila errepikatu duten ikasleena da (% 44,9), atzerritarra da (% 68,1), gurasoek ez dute derrigorrezko ikasketarik

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.

³ EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



(% 47,9) eta ISEK maila baxukoa da (% 64,3). 2011 eta 2019 arteko datuen bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 8,4 puntuko igoera goi-mailako ikasketak dituzten familien ehunekoan.



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.4.1 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Idatzizko ulermena, ahozko ulermena eta idatzizko adierazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

| | | 2011 | 2015 | 2017 | 2019 |
|-------------------|---------|------|------|------|------|
| Guztira | Guztira | 250 | 251 | 255 | 244 |
| | Neskak | 255 | 257 | 262 | 253 |
| | Mutilak | 246 | 245 | 248 | 237 |
| <i>Irakurmena</i> | Guztira | 250 | 249 | 254 | 240 |
| | Neskak | 254 | 256 | 261 | 249 |
| | Mutilak | 246 | 244 | 247 | 232 |
| <i>Entzumena</i> | Guztira | 250 | 253 | 256 | 251 |
| | Neskak | 254 | 259 | 262 | 259 |
| | Mutilak | 246 | 248 | 250 | 243 |
| <i>Idazmena</i> | Guztira | 250 | 250 | 250 | 250 |
| | Neskak | 261 | 256 | 258 | 257 |
| | Mutilak | 239 | 244 | 243 | 242 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.4.2 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera

| | HASIERA Errendimendu maila | | | ERDIA Errendimendu maila | | | AURRERATUA Errendimendu maila | | |
|------|-------------------------------|--------|---------|-----------------------------|--------|---------|----------------------------------|--------|---------|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2011 | 16,9 | 14,1 | 19,5 | 58,5 | 59,0 | 58,1 | 24,6 | 26,8 | 22,4 |
| 2015 | 16,2 | 12,2 | 19,9 | 58,6 | 59,1 | 58,1 | 25,3 | 28,7 | 22,0 |
| 2017 | 14,3 | 10,9 | 17,6 | 59,0 | 57,8 | 60,0 | 26,7 | 31,2 | 22,3 |
| 2019 | 21,0 | 14,6 | 27,1 | 57,8 | 59,9 | 55,8 | 21,2 | 25,5 | 17,1 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019..



E2.2.4



Curriculum konpetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.



E2.2.4.3 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

| | 2011 | 2015 | 2017 | 2019 |
|-------------|------|------|------|------|
| A Publikoa | 198 | 203 | 211 | 206 |
| B Publikoa | 226 | 221 | 224 | 211 |
| D Publikoa | 244 | 243 | 247 | 237 |
| A Itunpekoa | 260 | 266 | 276 | 256 |
| B Itunpekoa | 256 | 259 | 258 | 252 |
| D Itunpekoa | 264 | 263 | 266 | 252 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.4

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.4.4 taula:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

| | | Ikasle % | | | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|------------------------------------|-----------------------------------|----------|------|------|-------------|-----------------|------------|------------------|
| | | 2011 | 2015 | 2017 | 2019 | 2019 | | |
| ISEK | Maila baxua ² | 18,3 | 20,4 | 20,2 | 19,9 | 35,7 | 53,4 | 10,9 |
| | Maila ertain baxua ² | 22,0 | 24,6 | 24,9 | 25,1 | 23,4 | 59,5 | 17,1 |
| | Maila ertain altua ² | 28,5 | 28,2 | 25,6 | 26,0 | 18,7 | 61,3 | 20,1 |
| | Maila altua ² | 31,2 | 26,8 | 29,4 | 28,9 | 10,9 | 56,2 | 33,0 |
| Egokitasuna | Ikasmila egokia | 81,2 | 81,2 | 84,4 | 84,2 | 14,6 | 60,7 | 24,8 |
| | Ikasmila EZ egokia | 18,8 | 18,8 | 15,6 | 15,8 | 55,1 | 42,6 | 2,3 |
| Titulartasuna | Publikoa | 45,2 | 47,2 | 46,0 | 45,7 | 26,6 | 57,3 | 16,1 |
| | Itunpekoa | 54,8 | 52,8 | 54,0 | 54,3 | 16,3 | 58,2 | 25,5 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrig. Ikask. bukatu gabe | 3,4 | 3,0 | 2,6 | 2,5 | 52,1 | 44,6 | 3,3 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 17,9 | 15,5 | 13,6 | 13,0 | 42,7 | 50,8 | 6,5 |
| | Batxilergoa, HZ | 36,2 | 35,9 | 34,9 | 33,6 | 21,8 | 63,4 | 14,8 |
| | Goi mailako ikasketak | 42,5 | 45,6 | 48,9 | 50,9 | 12,6 | 56,9 | 30,5 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 92,3 | 92,1 | 92,2 | 91,0 | 19,8 | 58,2 | 22,0 |
| | Atzerritarra | 7,7 | 7,9 | 7,8 | 9,0 | 31,9 | 54,5 | 13,6 |
| Familia-hizkuntza | Euskara | 19,9 | 20,9 | 18,7 | 17,9 | 13,2 | 62,6 | 24,2 |
| | Euskara EZ | 80,1 | 79,1 | 81,3 | 82,1 | 22,3 | 57,0 | 20,7 |

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.4


Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Ingelesa.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.4.4 grafikoa:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.